

ISAD(G) deskribapen proposamena, funts mailan

1. Identitate aipamenaren atala

1.1. Erreferentzia kodea:

1.2. Izenburua:

Bilboko Irakasle Eskola zaharraren funtsa

1.3. Datak:

1902-1980

1.4. Deskribapen maila:

Funtsa

1.5. Luzera eta euskarria:

Funtsen gutxi gorabeherako bolumena:

2. Inguruabarren atala

2.1. Egilea/ekoizlea:

Indarrean egon zen aldiari hainbat alditan aldatu zituen antolamendua, mendekotasuna eta izena:

- * Bilboko Oinarrizko Irakasle Eskola (1865-1913)
- * Bizkaiko Maistren Goi Eskola Normala (1902-1931)
- * Bizkaiko Lehen Hezkuntzako Irakasleen Eskola Normala (1931-1945)
- * Bilboko Irakasleen Eskola Normala (1945-1971)
- * OHOKo Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Eskola (1971-1982)

2.2. Erakundearen historia:

1865eko urrian sortu zen **Bizkaiko Irakasleen Eskola Normal Profesionala**, Bilboko Bigarren Hezkuntzako Institutuan. 1864an, Sustapen Ministerioak Bizkaiko Irakasleen Eskola Normalaren sorrera onartu zuen. Eskola 1865-1866 ikasturtean jarri zen martxan. Urte horien bereizgarria ikasle urritasuna izan zen; XIX. mendearen azken hamarkadan, ez zen egon 11 matrikula baino gehiagoko ikasturterik.

Eskola horri, irakasleak prestatzeko gainerako eskolei bezala, ikasgai pedagogiko didaktikoetan lanbide prestakuntza handiagoa sartzearen alde zeudenen eta kultura prestakuntza hobeari irakasleak dizipuluei eman beharreko ezagutzetan oinarrituta– alde zeudenen arteko liskarrak eragin zien. Aro horretan ere abiarazi zen kultura eta euskara irakaskuntzan eta, beraz, irakasleen prestakuntzan, sartzea asmo zuen mugimendua. Baina, beharbada, erakunde horren arrakasta eskasaren arrazoi nagusia zen Bizkaian irteera profesionalik ez egotea irakasle gazteentzat; horixe argudiatu zen kentzeko eskaeran. Aipatu ikastetxeak institutu orokor eta teknikoaren barnean geratu ziren 1901ean

(1901eko azaroaren 17ko Errege Dekretuaren bidez). Bilbokoak martxan jarraitu zuen 1913ra arte, gizonezko ikasleekin soilik.

Bestalde, **1902an, Maistren Goi Eskola Normala** sortu zen Mesedeetako kaleko 5 zenbakiko 2. solairuan. 1901eko plana zegoen indarrean (oinarrizko maistraren titulua lortzeko, 16 urteak beteta, institutuan hiru urte eginda eta errebalida eduki behar ziren, eta beste bi urte eta errebalida, goi maistrarena lortzeko). 1903ko planak, aldiz, sarrera erraztu zuen: 14 urterekin sartu zitekeen, eta bi ikasketa urteren buruan oinarrizko maistraren titulua eskuratu, eta Normalean bi urte gehiago eginda, goi maistrarena.

Matrikula kopuruak gora egin zuen, eta, 1903-1904 ikasturtean, Gordoniz kaleko 4 zenbakiko txaletera lekualdatu zen. Eta 1912-1913 ikasturtean, aldiz, Solokoetxeko ospitale zaharrera (eskola gisa birmoldatuta). 1914ko planak, sarrera baldintzak aldatu zituen (14 urte, sarrerako azterketa, lau urte eta amaierako azterketa, maistra titulua lortzeko). Ikastetxeak ikasgelaz ondo hornituta zegoen, eta zientzietako laborategia, lorategi botanikoa, behatoki meteorologikoa, musika gela, etab. zituen. 1918an, euskarako katedra sortu zen, Aldundiak sustatuta. Doakoa, publikoa eta borondatezkoa zen, eta irakasle gehienak alfabetatu zituen 1923an itxi zuten arte. **1931ko** planarekin, ikasketok unibertsitatearen barnean sartu ziren. **Bizkaiko Lehen Hezkuntzako Irakasleen Eskola Normalean** sartzeko goi batxilergoa behar zen, eta, unibertsitatean lau urte araubide mistoan emanda, lehen hezkuntzako maisu-maistraren titulua eskuratzen zen. 1931n eskola misto bihurtu zen; gizonak onartuta zeuden, izan irakasle, izan ikasle. 1932-1933 ikasturtean, Areiltza doktorearen kaleko Josulagunen ikastetxe bahitura aldatu ziren.

Normalak 1937-1938an itxi zituen ateak, eta 1938-1939 ikasturtetik aurrera, Cervantes eskolaren eraikinean kokatu zen, Lersundi kalean. Bi plan ezarri ziren, 1942koa (lehen hezkuntzako oinarrizko kultura eta lau urte Normalean) eta 1945ekoa (oinarrizko batxilergoa eta hiru urte, errebalida Normalean eginda). **1945-1946 ikasturtean, bi eskola zeuden, Maistren Eskola Normala eta Maisuen Eskola Normala.** Ikastetxea eskasa zen, eta hogeita hamar milioi pezetako kostuarekin, estatuak, Aldundiak eta Udalak estilo arrazionalistako eraikin baten (lau solairu eta beheko solairua) eraikuntza finantzatu zuten. Manuel Lora Tamayo Hezkuntzako ministroak inauguratu zuen eraikina 1962ko irailaren 5ean. Navarro, Líbano eta Aguirre arkitektoek eraiki zuten Ramón y Cajal kaleko 118 zenbakian, Arangoiti auzoan. Hiru blokeko eraikina zen; erdikoa, erabilera komunekoa, eta alboetako biak, antzekoak biak ere, eskuinekoa, Maisuen Eskola Normalarena, eta ezkerrekoa, Maistren Eskola Normalarena. Eskulanetarako, marrazketarako, jostintzarako eta etxeko lanetarako ikasgelak sexuaren arabera bereizita zeuden. Beheko solairuan zeuden eskola erantsiak – 16 gradu, 40 ikasle bakoitzean –, irakaskuntzako teoria eta praktika batzeko.

1967ko planak zenbait hobekuntza ekarri zituen irakasle ikasketetan. Goi batxilergoa eduki behar zen, eta bi ikasturte nahiz praktika urte baten ondoren, eta Normaleko errebalida gaindituz gero, lehen hezkuntzako irakasle titulua lortzen zen. 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorrak **1971ko** plana ezarri zuen. Ikasturte horretan, eskola Bilboko unibertsitate barrutian sartu zen, eta **OHoko**

Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Eskola izena hartu zuen. Sartzeko, UBla eduki behar zen, eta hiru unibertsitate urteren buruan OHOk irakasle izateko diploma jasotzen zen, eskola aurreko, gizarte zientzietako edo zientzietako espezialitateetan. 1978-1979 ikasturtean, euskal filologiaren espezialitatea gehitu zen. **1980-1981 ikasturteaz geroztik, ikastetxea UPV/EHUren barne dago**, eta 1982-1983 ikasturteaz geroztik, eskola Bilboko Irakasleen Prestakuntza Eskola izendatu zuten. Ondoren, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola izendatu zuten.

2.3. Historia artxibistikoa:

Martxan egon den urte horietan guztietan eskolak egoitza bat baino gehiago izan du; hala, dokumentazioa hainbat fitxategitan egon da. Gaur egun, eskolaren egoitza ohian fitxategi gordailu bat dago, baina ez dago dokumentazio guztia bertan, ikasketen administrazio egoera eta kokapen desberdinengatik, sakabanatuta dagoelako dokumentazioa, bai zentroan bertan, bai administrazioen artean.

2.4. Eskuratze edo eskualdatze iturria:

Funts itxia

3. Eduki eta egitura atala

3.1. Helmena eta edukia:

Bilbon irakasle ikasketek egoitza asko izan dituztenez, eta beste inguruabar batzuegatik ere bai, dokumentazio historiko urriagoz eta sakabanatuagoz osatuta dago ikastetxeko egungo dokumentu funtsa. Serie hauek identifikatu dira:

- ***Irakasleen espediente seriea*** (1902-1980). Agiri kopuru handienekoa da
- ***Azterketa akten seriea*** (1902- 1980)

Alabaina, ikastetxean bertan gordetako dokumentazio historikoaz gain, ikastetxoek institutu orokor eta teknikoetara igaro zirenez 1901ean, Bilboko Miguel Unamuno bigarren hezkuntzako institutuan zainduta zegoen dokumentazioa ere **Euskadiko Administrazioaren Artxibategi Nagusira** aldatu zen 1997an. Gorde diren dokumentuak 1902tik eta 1913ra arteko maiatzeko, ekaineko eta iraileko azterketen aktak dira.

3.2. Balorazioari, aukeraketari eta deuseztatzeari buruzko informazioa:

Ez dira ebaluatu agiri serieak.

3.3. Sarrera berriak:

Funts itxia da.

3.4. Antolamendu sistema:

Ez dago sailkapen koadrorik.

4. Sarbide eta erabilera baldintzen atala

4.1. Sarrera baldintzak:

Agiri gehienetarako sarbidea librea da, aurretiaz kontsulta eskabidea eginda UPV/EHUko Artxibo Nagusiari. 1968tik aurrerako agirien sarbidea mugatuta dago.

4.2. Erreprodukzio baldintzak:

Ikasketa eta ikerketa helburuetarako bakarrik dago baimenduta, aurretiaz eskabidea eginda.

4.3. Materialaren hizkuntza:

Gaztelania

4.4. Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak:

Oro har, kontserbazio egoera ona da.

4.5. Deskribapen tresnak

ISAD(G) fitxa, funts mailan.

7. Deskribapen kontrolerako atala

7.1. Artxibozainaren oharra:

Miguel Ángel Santos Cresporen deskribapena.

7.2. Arauak:

ISAD (G): Norma internacional general de descripción archivística. 2. ed. Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Kulturako Estatu Idazkaritza, 2000).

ISAAR (CPF): Norma internacional sobre los registros de autoridad de archivos relativos a instituciones, personas y familias. 2. ed. Madril: Kultura Ministerioa, 2004.

Manual de descripción multinivel. [Salamanca]: Gaztela eta Leongo Junta. Hezkuntza eta Kultura Saila, 2000.

7.3. Deskribapen data:

2018ko martxoa.